

## Behin-behineko langileen zerrenda 2017ko ekainaren 30ean

Lanpostu kopurua: 5

Arloa: Teknikoa  
Lanpostua: Eraberritze eta iraunkortasun teknikaria  
Urteko ordainsaria: 48.466,89 € lanaldi osoa  
28.595,47 € lanaldiaren % 59

Funtzioak: Arlo energetikoko proiektuak kudeatzen laguntzen du, baita ingurumen eta iraunkortasun arloan, eta PIME's eta Open House proiektuetan ere. Honako lan hauek egiten ditu: txostenak egin, praktika onak ikertu eta aztertu, ebaluaketak eta azterlanak egin sistema energetiko berriak garatzea proposatzeko, foroetan eta lan-taldeetan parte hartu, baita europar programetako ikerketa-taldeetan ere, gure proiektuetara haien aplikagarritasuna ekarri ahal izateko eta erakundeak daukan sistema energetiko irakunkorrek bilatzeko konpromisoa betetzeko.

Kontratu amaiera: 2017ko uztailaren 31n

Arloa: Juridikoa  
Lanpostua: Teknikari juridikoa  
Urteko ordainsaria: 48.466,89 €

Funtzioak: Laguntza juridikoa ematen du enpresako jarduketa orokorrean (sustatzea, kontratatzea, saldu ondoko zerbitzua...) eta bereziki, Departamentuak egindako enkargua indarrean dagoen bitartean behar den laguntza juridikoa Ikuskapen Teknikoen Erregistroa kudeatzeko. Honako lan hauek egiten ditu: kontsultak argitu, txostenak eta irizpenak egin eta laguntza juridikoa eman beste arloei, haien arduradunek behar dituzten gaietan jarduketa ondo garatzeko eta erabakiak hartzeko.

Arloa: Teknikoa  
Lanpostua: Arloko administraria  
Urteko ordainsaria: 28.005,48€  
Funtzioak: Teknikariei eta zuzendaritzari administrazioaren laguntza osoa ematen die, administrari lanak eginez eta bere arloaren dokumentazioaren kudeaketa fisikoa eta informatikoa kudeatuz. Hori guztia, azterketa, hobekuntza eta prozeduraren ebaluaketa egin ahal izateko, eta lan-prozesuak behar den epean eta kalitatez gauzatzen laguntzeko.

Arloa: Bezeroentzako arreta  
Lanpostua: Saldu ondoko lurralde-arduraduna  
Urteko soldata: 52.889,94€  
Funtzioak: Etxebizitzan akabera-prozesua kudeatzea, gertakariak ikuskatuz eta ebazpenak kudeatuz, etxebizitza eskuratu aurretik eta ondoren.

Horretarako, honako lan hauek egiten ditu:

Bezeroek etxebizitzetara egiten dituzten bisitak kudeatu; dokumentazio tekniko eta grafikoa egin; izan litezkeen gorabeheren berri eta aholkuak eman hirugarrenei; txosten teknikoak igorri erabakiak hartzeko; auziak ebazteko behar den guztian lagundu.